EUSKADI lagunkoia
Bizitzaz betetako bidea

IE

GIZARTE-PARTAIDETZA

EKINTZARAKO GIDA

Euskadi Lagunkoiaren 2. Monografiko saila

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren proiektua da.

Matia Institutuak Euskadi Lagunkoia Sareko udalerrien laguntzarekin egindako gida.

Lantaldea:

Andrea Pozo
Ainara Tomasena
Juan Albarrán
Elena del Barrio (Koordinazioa)

Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi- Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalatzen du.

AURKIBIDEA

1 GIZARTE-PARTAIDETZA GIDA-MONOGRAFIKOA 4

Zergatik egiten dugu gida hau? 4

Zer aurkituko duzu gida honetan? 4

2 GIZARTE-PARTAIDETZA 6

Zer da gizarte-partaidetza? 6

Zer helburu ditu gizarte-partaidetzak? 7

Zerk eragin dezake gizarte-partaidetzan? 8

- Pertsonaren alderdiak 8
- Inguruneko alderdiak 11

Zer onura ditu gizarte-partaidetzak? 12

Gizarte-paitadetzako zer modu daude? 14

Gizarte-partaidetza sustatzeko gakoak 15

3 PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA 17

Zer hartu behar da kontuan? 17

Partaidetza-tailerrak 22

5 PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEKO GALDERAK 27

6 ESPERIENZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK 28

Landa-eremua 28

- Tokikoak 28
- Estatukoak 30
- Nazioartekoak 32

Hiri-eremua 32

- Tokikoak 32
- Estatukoak 34
- Nazioartekoak 38

1. GIZARTE-PARTAIDETZA GIDA-MONOGRAFIKOA

Zergatik egin dugu gida hau?

Ingurune lagunkoiek adinekoei zahartzen laguntzen diete
askatasun eta osasun onez,
nahi duten bizitza izan dezaten
eta gizartean barne senti daitezen.

Gizarte-partaidetza gure udalerrien
lagunkoitasun-proiektuaren funtsezko parte bat da eta, honetan,
adinekoek bere inguruneari eta eragiten dieten
politikei buruzko erabakietan parte hartzen dute.

Adinekoek gizartearen parte aktiboa izan behar dute.
Baina, garrantzitsua da
administrazio publikoek, elkarteek,
boluntarioek, enpresek eta oro har, herritarrek laguntzea.

Zer aurkituko duzu gida honetan?

- Euskadi Lagunkoia Sareko hainbat udalerrik gida hau egiten parte hartu dute.
  Amaieran agertzen diren
  jardunbide egoki batzuk ekarri dituzte
  eta gidaren edukia berrikusi dute.
  Jardunbide egokiak udal-esperientziak dira
  eta aurkitu diren nazioarteko beste batzuk ere.

1. GIZARTE-PARTAIDETZA GIDA-MONOGRAFIKOA

Udalerri hauen parte hartzea eskertu nahi dugu:

Elkar-sortze prozesuan zehar

- Idiazabal
- Ermua
- Zumárraga
- Alegría- Dulantzi
- Santurtzi
- Antzuola

Esperientzien bilketan zehar

- Legazpi
- Zumárraga
- Aretxabaleta
- Idiazabal
- Igorre
- Portugalete
- Muskiz

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Zer da gizarte-partaidetza?

Gizarte-partaidetzak esan nahi du
gure komunitateari eta gizarteari
eragiten dioten erabakiak hartzen laguntzea
eta praktikan jartzen direnean lankidetzan aritzea.
Horretarako, pertsona guztiek dakitena ematen dute
eta denbora eta baliabideak ematen dituzte.
Gizarte-partaidetzak gizartearen parte aktibo egiten gaitu.

Gizarte-partaidetza pertsona guztion eskubidea da,
eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean
eta Espainiako Konstituzioan barne daude.

Gizarte-partaidetza baimentzen duten moduak
egon behar diren arren,
pertsona bakoitzak erabakitzen du
parte hartu nahi duen ala ez.
Gainera, pertsona bakoitzak erabakitzen du **inplikazioa**,
hau da, zenbat parte hartu nahi duen
norberaren interesen arabera.
Konpromisoa ere erabakitzen du,
zenbat denbora eta ahalegin eskaini nahi duen.

Adibidez, Lagunkoiako udalerrietan
diagnosia egiteko foku-taldeetan modu zehatzean
parte hartzen duten pertsonak **inplikazioren** adibide dira.
Talde Sustatzaileetan denbora luzeagoan modu aktiboan
parte hartzen duten pertsonak **konpromisoaren** adibide ona dira.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Zer helburu ditu gizarte-partaidetzak?

- Pertsonak gizarteko kide aktibo gisa aitortzea.
  Horrela, politika publikoetan parte hartu
  eta erabaki ahal izango dute
  eta hobetzen lagundu.

- Herritarren arteko topaketa- eta hausnarketa-guneak sortzea
  eta baita herritarren eta administrazio publikoen
  edo elkarteen artekoak ere.

- Gobernatzeko modua sareko lan baterantz eraldatzea,
  pertsona guztiek bertan partaide izan daitezen.

- Aniztasuna errespetatzea eta zaintzea,
  pertsona bakoitza nolakoa den kontuan hartuta.

- Gizartean inplikatzearen garrantzia ikusaraztea,
  pertsona askoren lankidetzak
  gizarte hobea sortzen baitu.

- Gizartea elkartuago egon dadin
  eta pertsona guztiak parte senti daitezen laguntzea.

- Guztion ongia bilatzea.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Zerk eragin dezake gizarte-partaidetzan?

Gizartean parte hartzeko moduan
eragina izan dezaketen hainbat alderdi daude.
Batzuk pertsonalak dira
eta gure egoera pertsonalarekin dute zerikusia.
Beste batzuk testuingurukoak dira
eta inguratzen gaituen ingurunearekin dute zerikusia.

Pertsonaren alderdiak

1. Osasuna eta mendekotasuna

Osasun ona dugunean
eta bizitza autonomoa daramagunean
errazagoa da gizartean parte hartzea.

2. Bizitza-ohiturak

Gure ohiturek eta gure errutinak eragin handia dute
gizartean parte hartzeko orduan.
Elkarte edo gizarte-mugimenduetan
parte hartu duten pertsonak
gizarte-partaidetzako prozesuetan
inplikatzeko aukera handiagoa dute.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA



3. Maila sozioekonomikoa edo estatus soziala

Diru-sarrera gutxi duten pertsonek
gizartean parte hartzeko aukera gutxiago dute.
Lan egin duten pertsonak aktiboago egon dira
eta errazagoa da partaidetzako prozesuetan inplikatzea.

4. Generoa

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak ere
nabaritzen dira gizartean parte hartzerakoan,
bereziki landa-inguruneetan.

Emakumeek parte hartzen dute
berek antolatzen dituzten espazioetan
denbora eta ezagutzak partekatzeko asmoarekin.
Gizonek interes jakin batengatik parte hartzen dute
eta espazio formalizatuagoetan.
Zorionez, diferentzia horiek aldatzen ari dira
eta emakumeek gero eta gehiago hartzen dute parte
espazio publikoetan.

5. Senideak zaintzea

Senideren bat zaindu behar dugunean,
adinekoa izan edo haurrak izan,
denbora gutxiago dugu gizartean parte hartzeko.
Hori, bereziki, landa-inguruneetan gertatzen da
laguntza-zerbitzu gutxiago baitaude.

Gainera, zaintzak batez ere emakumeei eragiten die,
etxeetako zaintzaile nagusiak izaten jarraitzen dutelako.
Hala ere, beste pertsona batzuk zaintzea
gizarteari laguntzeko modu bat ere bada.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

6. Harremanak elkarteekin, erakundeekin eta beste pertsona batzuekin

Elkarteetako edo beste erakunde batzuetako kideek aukera gehiago dituzte gizartean parte hartzeko. Auzoan jende askorekin harremana duten pertsonek ere, lagun edo senide asko dituztenek errazago izango dute parte hartzea eta lagunartean egitea.

7. Lider izateko gaitasuna

Pertsona batzuek gogo handiagoa dute gizarte-partaidetzan inplikatzeko eta liderra izateko. Pertsonek duten borondatearen arabera, errazagoa izango da jarduera bat aurrera ateratzea.

8. Ingurunearekin pozik egotea

Pertsona bat ingurunean, auzoan edo hirian gustura dagoenean eta han maitatua sentitzen denean, errazagoa zaio gizartean parte hartzeko jardueretan inplikatzea. Batzuetan, norbait ingurunean eroso ez dagoenean, hobetzeko konpromisoa ere har dezake.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Inguruneko alderdiak

1. Ingurune adiskidetsuak, bateratuak eta irisgarriak

Gizarte-partaidetza asko errazten du
beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea
erraza den lekuetan bizitzeak,
parte hartzeko aukerak eta elkartzeko guneak
dauden lekuetan bizitzeak.
Baita garraio publikoarekin eta azpiegitura onekin
mugitzeko erraza eta irisgarria den lekuetan ere.

2. Partaidetzaren kultura

Gizarte-partaidetza handiagoa dago
administrazioek hartutako erabakiak
herritarrei zer iruditzen zaizkien
galdetzeko ohitura dutenean.
Baita leku horretan pertsonak elkarte
edo taldeetan antolatzen direnean ere.

3. Gizarte helburu partekatua

Leku batean bizi diren pertsona gehienak
ados daudenean zein diren arazo garrantzitsuak
eta zer hobekuntza egin beharko liratekeen,
errazagoa da pertsonek parte hartzea eta inplikatzea.

4. Ondo funtzionatzen duten erakundeak

Pertsona guztiek bat egitea eta esperientzia partekatzea
errazten duten erakundeak dauden inguruneetan
errazagoa da herritarrek parte hartzea.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Zer onura ditu gizarte-partaidetzak?

Maila fisikoan:

- Pertsonen sasoi fisikoa hobetzen du, aktiboago daudelako.

- Gaixotasun eta ezintasunak saihesten laguntzen du.

- Pertsonen osasuna hobetzen du: fisiko, kognitibo eta sozialki.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Maila emozionalean:

- Autoestimua eta norberaren zaintza hobetzen ditu.

- Bakardadea, depresioa eta estresa murrizten ditu.

- Pertsona gehiagorekin harremanak izaten laguntzen du eta elkarri laguntzen ere.

- Gure egoera hobeto ezagutzea eta besteena hobeto ulertzea eragiten du.

- Gure gizarte-trebetasunak eta garapen pertsonala hobetzen ditu.

Gizarte-mailan:

- Gizartea bateratuago egoten eta gizartearen parte senti gaitezen laguntzen du.

- Eguneroko arazoei irtenbideak eskaintzen dizkie.

- Pertsonak aldaketen parte aktibo bihurtzen ditu.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Gizarte-partaidetzako zer modu daude?

Gizarte-partaidetza modu asko daude.
Pertsona bakoitzak aukeratu behar du
nola parte hartu nahi duen,
norberaren egoeraren eta ingurunearen arabera.
Pertsona batek parte hartzea erabakitzen duenean,
jarduera hori garrantzitsua dela uste duelako da.
Honako hauek dira gizarte-partaidetza modu edo maila desberdinak:

Gizarte-partaidetza mailak

1

- Norberak bere bizitzari buruzko erabakiak hartzea, banaka.

2

- Beste pertsona batzuekin partekatutako espazio batera joatea, baina haiekin harremanik izan gabe.
  Adibidez, ikastaroetara edo hitzaldietara joatea.

3

- Beste pertsona batzuekin denbora partekatzea, elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
  Adibidez, kuadrillarekin zinemara edo afaltzera joatea.

4

- Besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.
  Adibidez, senide bat zaintzen edo borondatezko lana egiten.

5

- Beste pertsona batzuekin harremanak izatea, gure gizartea hobetzeko helburu komun batekin.
  Adibidez, lagunkoia talde sustatzaileen udal kontseiluetako kide izatea.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Gizarte-partaidetza sustatzeko gakoak

Norbanakoan pentsatzeari utzi eta taldean pentsatzea:

Parte hartzeak esan nahi du
arazoak besteekin partekatzea
eta guztien artean konponbideak
eta proposamenak bilatzea.
Taldean lan egiteak gertuen dugun
komunitatearen parte sentiarazten gaitu.

Garrantzitsua iruditzen zaigunean parte hartzea:

Gure parte-hartzea aberasgarria izan dadin,
garrantzitsuak iruditzen zaizkigun jardueretan sartu behar gara.
Pertsonek bere lehentasun, balore eta sinesmenen arabera
parte-hartuko dute.

Norberaren autonomia eta komunitate-zentzua sustatzea:

Gure inguruneak gizarte-partaidetza errazten badu,
pertsonak seguruago sentituko dira
eta parte hartzera bultzatuko ditu.
Horrela, gaitasunak garatu
eta gainerako pertsonen zerbitzura jarri ahal izango dituzte.
Horrek komunitatean integratuago sentiaraziko ditu.

Kontziente izatea eta elkar-sortzetik elkarlanean aritzea:

Elkarlana erabakiak batera hartzean oinarritzen da.
Horretarako, taldearen arazoak ezagutu,
horiei buruz hausnartu eta irtenbide
partekatuak bilatu behar dira.
Horregatik da garrantzitsua elkar-sortzea,
pertsona guztien iritziak berdin kontuan hartzen baititu.

2. GIZARTE-PARTAIDETZA

Gizarte-partaidetza sustatzeko gakoak

Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea eta sarean lan egitea:

Gizartearen partaidetzak arrakasta izan dezan, erakunde posible guztiek lagundu behar dute: administrazioek, elkarteek edo enpresek.

Sarean lan egitean, erakunde guztiek partekatzen dituzte lan egiteko modua eta dituzten baliabideak. Horrela, arazoei erantzun eraginkorragoa eman diezaiekete.

Lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea:

Pertsonek dituzten beharrak eta horiek konpontzeko dituzten baliabideak desberdinak dira landa-eremuetan eta hirietan. Landa-eremuetan pertsona gutxiago bizi dira eta elkarrengandik urrunago bizi dira hiri batean baino. Diferentzia horiek parte hartzeko moduari eragiten diote. Horregatik, gizarte-partaidetza prozesuak egokitu behar dira lurralde bakoitzaren beharretara eta bertan bizi diren pertsonetara.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Zer hartu behar da kontuan?

Partaidetza-prozesua irekia izan behar da,
behar denean aldatzen doana
taldea osatzen duten pertsonei egokitzeko.
Horregatik, hobe da ez oso zorrotzak izatea planifikatzean.
Taula honetan ikusiko dituzu
benetako partaidetza prozesua martxan jartzeko oinarriak:

Oinarria	Nola egingo dugu?	Zer lortuko dugu?
Parte-hartzaileak		
"Onuradun" izatetik "eragile aktibo" izatera.	Parte-hartzaile guztiei prozesuan eta erabaki-hartzean eragiteko gaitasuna eta ahalmena aitortzea.	Inplikatutako, konprometitutako eta motibatutako parte-hartzaileak.
Helburuak		
Helburu irekiak eta prozesuan egokitu daitezkeenak ezartzea.	Guztien helburua taldearen beharretara eta lehentasunetara egokitzen joan daitekeela jakitea. Guztien helburu hori eraikitzen da denen hausnarketaren eta lankidetzaren bidez.	Malgutasuna eta moldatzea.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Oinarria	Nola egingo dugu?	Zer lortuko dugu?
Giroa eta ingurunea		
Talde-giro segurua eta konfiantzazkoa.	Berdintasuna eta errespetua sustatzea, denen balio, sinesmen eta iritzi desberdinak baloratzearen bidez.	Adierazpen-askatasuna, harreman egonkorrak, konfiantza eta errespetua.
Komunikazioa eta elkarrizketa		
Elkarrizketa berdinetik berdinera, jakinda taldean ez dagoela inor beste inoren gainetik.	Norberaren iritzia adierazteaz gain, besteena arretaz entzutea, errespetatzea eta baloratzea.	Berdintasun-harremanak, elkarrizketan oinarrituak. Elkar-sortzea, ideia berriak, akordioak eta gatazkak taldean konpontzea.
Erabakiak hartzea		
Prozesu berdinzaleak eta demokratikoak.	Denei entzuten zaiela eta pertsona guztiek parte har dezaketela ziurtatzea, gutxiengoak baztertu gabe. Erabakiak guztien adostasunez edo gehiengo soilez hartzea.	Denak sentitzen dira erabakiaren barne eta taldeko kide izatearen zentzua garatzen dute.
Informazio-kanalak		
Parte-hartzaile guztiek berdintasunez eskuratu ahal izango dute informazioa.	Iragarki-taula bat, informazio-gune bat, deiak... erabiltzea.	Baldintza berdintasuna parte hartzeko.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Partaidetza-tailerrak

Partaidetza-prozesu bat martxan jartzeko
lankidetza guneak sortu behar dira.
Horietan, elkar-sortzetik lan egin behar da,
parte-hartzaile guztiak kontuan hartuta
eta erabakiak guztien adostasunez hartuta.

Partekatutako espazio horiek sortzeko modu desberdinak daude;
partaidetza-tailerrak dira eraginkorrenetako bat.
Bileretan talde osoak ezagutza eraikitzen du
eta modu bateratu eta autonomoan antolatzen du.
Bideratzaile batek laguntzen dio taldeari prozesu osoan.

Partaidetza-tailerretan garrantzitsuena da
parte-hartzaile guztien lankidetza
guztien helburu bat lortzeko.

Pertsona guztiek sentitu behar dute entzunak direla,
ezagutzak eta trebetasunak partekatu behar dituzte
eta akordioak lortzeko hitz egin behar dute.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Partaidetza-tailer bat martxan jartzeko,
hainbat gomendio hartu behar dira kontuan:

Bilerako helburua argi izatea

Parte hartzen duten pertsona guztiek
bileraren gaia zein den jakin behar dute, garaiz prestatzeko.

Horretarako, zer bilera mota izango den erabaki behar da:

- **Estrategikoa:** antolatzeko modua sortzeko edo aldatzeko, hori egiteko moduari buruzko proposamenekin.
- **Antolakuntzakoak:** zereginak banatzeko.
- **Operatiboak:** arazoei buruz hitz egiteko eta horiek konpontzeko.

Bileraren agenda antolatzea

Bilera bakoitza denboraz antolatzen da.
Zer gaiez arituko diren erabakitzen da
eta zenbat denbora eskainiko zaion bakoitzari.
Parte-hartzaile guztiek adostu behar dute
eta agenda nahi dutenean ikusi ahal izango dute.
Bilera bakoitzaren amaieran,
taldeak erabakiko du hurrengo agenda.

Bileraren agendak, gutxienez, honako informazio hau izango du:

- Bileraren **lekua eta data.**
- Parte-hartzaile bakoitzaren zeregina.
- Gai bakoitzari eskainiko zaion denbora.

Denbora errespetatzea oso garrantzitsua da.
Egokiena bilera batek ordu eta erdi baino gutxiago irautea da.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Oinarrizko akordio partekatuak

Talde bakoitzak bileren funtzionamendu egokia erraztuko duten akordioen zerrenda egin behar du. Akordio horiek parte-hartzaile guztien arteko errespetuari eta komunikazio onari buruzkoak izango dira. Erakundearen zati batzuei ere eragingo diete, adibidez, puntualtasuna edo bideratzaile bat izango duten.

Bideratzailearen rola

Pertsona batek bideratzaile lana egingo du, taldeak ondo funtziona dezan eta helburua bete dezan. Taldea gidatu eta orientatuko du, baina taldearen erabakietan eraginik izan gabe. Pertsona hori ere bitartekari izango da gatazkarik badago, zereginak banatzen lagunduko du eta pertsona guztiek parte hartzen dutela ziurtatuko du.

Erabakiak hartzeko modu eraginkor bat bilatzea



Erabakiak bilera bakoitzaren amaieran hartzen dira eta garrantzitsua da modu erraz eta eraginkorrean egitea. Horretarako, zer erabaki mota hartu behar den jakin behar da: zalantza guztiak argitu eta proposamen zehatzak egin behar dira.

Erabakiak har daitezke bozketa bidez edo parte-hartzaile guztien arteko akordio bidez. Garrantzitsua da denak hartutako erabakiarekin ados egotea. Gero, zereginak pertsonen artean banatu beharko dira, erabakitakoa gauzatzeko.

Giro lasaia eta atsegina sortzea

Bilerak leku erosoan egin behar dira, pertsona guztiak libre senti daitezen eta iritzia emateko konfiantzarekin.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Gizarte-partaidetza nola sustatu udalerrietan?

Udalerri batean partaidetza-prozesu batek
arrakasta izan dezan, parte har dezaketen pertsona guztiek
honen berri izan eta bertara heldu ahal izan behar dute.
Horretarako, udalerriek herritarren partaidetza
errazten duten neurri hauek har ditzakete:

Mugikortasuna eta sarrera errazten duten egiturak



Partaidetza-prozesu bat sortzeko, eroso eta seguru
irits daitezkeen espazioak izan behar dira.
Horretarako, garrantzitsua da espaloiak,
bideak eta errepideak irisgarriak izatea
eta garbi eta egoera onean egotea.
Baita etxebizitzak arrapala
edo igogailuekin egokituta egotea ere.

Eta garraio publikoko zerbitzu ona egotea,
batez ere, urrutien bizi direnentzat.
Horren guztiaren ondorioz, udalerria lagunkoiagoa izango da
eta pertsonek parte hartzeko gogo handiagoa izango dute.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Bilerak leku ireki eta informaletan ospatzea

Aukeratutako espazioek irisgarriak
eta pertsona guztientzat irekiak izan behar dute.
Horretarako, ona da udaletxeetatik edo elkarteetatik ateratzea
eta plazetan, parkeetan edo erabilera anitzeko guneetan biltzea.
Herri txikiagoetan, onena jendea egon ohi den tokietan
elkartzea da: tabernan, plazan, dendetan.

Topaketa-guneak erraztea eta dinamizatzea

Gizarte-partaidetza aukera gehiago egon daitezen,
elkarteak, taldeak... sortzea sustatu behar da.

Horrela, bertan bizi diren pertsona guztiei
jarduera interesgarriak eskaini ahal izango zaizkie.
Era berean, ona da merkatarien, udalen
edo elkarteen arteko topaketak egitea,
aliantzak sortzeko eta jarduerak elkarlanean egiteko.
Landa-inguruneetan, garrantzitsua da tradizioak,
erlijioa eta balioak kontuan hartzea
parte hartzeko jarduerak eskaintzerakoan.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Informazioa hedatzea

Parte hartzeko jardueren berri eman behar zaie
herritar guztiei eta pertsonek gehiago parte har dezaten
lagun dezaketen beste erakunde batzuei.
Horretarako, dendei edo farmaziei
laguntza eska diezaiekegu, jende asko igarotzen delako
eta ia herritar guztiak ezagutzen dituztelako.

Informazio-kanal informalak eta inklusiboak

Herritar guztiek informazioa jaso ahal izateko, beharrezkoa da:

- Hizkera inklusiboa erabiltzea.
- Hizkuntza guztiak erabiltzea.
- Hizkera irisgarria egitea.

Ona da bide zuzenagoak
eta pertsonalagoak erabiltzea,
hala nola hitzaldiak edo esku-orriak banatzea.
Ahoz ahokoa da informazioa transmititzeko
modurik eraginkorrenetako bat.
Interesdunei informazioa telefonoz ere eman daiteke.

Erakundeen laguntza

Erakunde publikoek herritarren
gizarte-partaidetza jarduerak babestu behar dituzte.
Dirua emanez egin dezakete,
erabakiak hartzeko entzuteko espazioak eskainiz
edo jarduerak sustatuta, jende gehiagok parte har dezan.

Beste udalerriekin lankidetzan aritzea



Hurbileko beste udalerri batzuekin lan egiteak
pertsonen parte-hartzea errazten du,
batez ere landa-inguruneetan.

3. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Lasaitzea eta prozesuaz gozatzea

Partaidetza-prozesuek ez dute erabakiak hartzeko
eta akordioak lortzeko bakarrik balio.
Topatzeko eta erlazionatzeko tokiak ere badira.
Horregatik zaindu behar da pertsonek elkar ezagutzea
eta besteekin gustura sentitzea.
Hau lortzen da, adibidez, gauzak elkarrekin ospatzen
edo bileretan pintxoak eta edariak partekatzen.

Giro ona sortzeak denbora behar du
eta eragile askoren mende dago.
Partaidetza-prozesuek malguak izan behar dute
eta taldea osatzen duten pertsonei egokitu behar zaizkie.
Ez da presarik izan behar amaitzeko
eta ez da zorrotza izan behar hasierako planeko denborekin.

Aitortza eta ospakizuna

Garrantzitsua da adinekoek martxan jarri dituzten
eta arrakasta izan duten partaidetza-prozesuak aitortzea.

Lan ona aitortzen denean,
pertsonak motibatuago daude parte hartzen jarraitzeko.

Aitortzak egin daitezke, adibidez,
jardunbide egokien sariak antolatuta
edo afariak edo ekitaldiak egiten.

4. PARTAIDETZA-PROZESUA MARTXAN JARTZEKO GALDERAK

1. Ezagutzen al ditugu pertsonek parte hartzeko dituzten moduak? Antzematen eta kontuan hartzen al ditugu gure prozesuan?
2. Partaidetza-gune irekiak, irisgarriak eta atseginak sortzen ari al gara? Espazio horiek inklusiboak al dira eta aniztasuna errespetatzen al dute?
3. Tokia eta aukera ematen al diegu pertsonei interesatzen zaizkien eta haientzat garrantzitsuak diren gaiak adierazteko?
4. Pertsonen lehentasunei eta kezkei erantzuteko jarduerak antolatzen ari al gara?
5. Ezartzen al ditugu partaidetza-prozesu irekiak eta moldagarriak, helburu malgudunekin eta hausnarketa bateratuari erantzuten diotenak?
6. Ekimenaren erabakiak hartzea parte-hartzaileen esku al dago uneoro?
7. Sustatzen al ditugu akordioan oinarritutako erabakiak hartzeko prozesuak, berdintasunezko elkarrizketaren bidez eta hitz guztiak entzuten diren lekuan?
8. Sarean ari al gara lanean udalerriko erakundeekin (administrazioak, elkarteak...)?
9. Erakundeen onespena eta babesa al dugu ekimena abian jartzeko?
10. Hedapen egokia egiten ari al gara informazio-kanal ulergarri eta eskuragarrien bidez?
11. Ba al dakigu nor diren ekimenari buruzko informazioa hedatzen lagun diezaguketen elkarte edo interes-taldeak?
12. Gure ekimena martxan jarriko den lurraldearen berezitasunetara eta ezaugarrietara egokitzen ari al gara?

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Gida honetan jasotzen diren jardunbide egokiak
landa-eremu eta **hiri-eremuan** taldekatzen dira.
Dakigunez, lurralde bakoitzak behar desberdinak ditu
eta partaidetza moduak ere desberdinak dira.
Horrela, gida hau erabilgarriagoa izango da
udalerri desberdinentzat.

Jardunbide egoki bakoitzean partaidetza maila adierazten da,
1etik 5era, partaidetza moduen arabera,
14. orrian azaltzen den bezala.

Gida honetan agertzen diren tokiko praktiketako batzuk
Euskadi Lagunkoia sareko udalerriek bidalitakoak dira,
hala nola Idiazabalek, Aretxabaletak, Zumarragak,
Portugaletek eta Legazpik.

Jardunbide egoki gehiago ikus ditzakezu webgunean:

Jardunbideak arloka - EUSKADI LAGUNKOIA

Landa-eremua

Tokikoak

Adinekoen ahalduntze taldea

Tokia: Soraluce (Gipuzkoa).

Helburua: Adinekoei erabakiak hartzeko aukera ematea,
komunitatean parte hartzen
eta beste belaunaldi eta kulturekin erlazionatzen.

Nori zuzentzen zaio: Soraluzeko adinekoei.

Zertan datza: Udalerriko programei eta zerbitzuei buruz
adinekoek erabakiak hartzen zituzten lan taldea,
udaleko teknikarien laguntzarekin.
Arrakastaren adibide moduan, “2. Pertsona Nagusien Astea"
antolatu du talde honek.

Nork parte hartzen du: Alkarri Elkartea, Mesedeetako Ama Zaharren Egoitza,
Menpekotasuna duten Adinekoen Eguneko Zentroa eta Itxaropena Jubilatuen Elkartea.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/jxF39

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Tokikoak

Esperientzia Gela

Lugar: Soraluze (Gipuzkoa).

Helburua: Adinekoen ahalduntzeari eta zahartze aktiboari laguntzea, parte hartu, iritziak eman eta erabakiak hartzeko tokiak sortzen.

Nori zuzentzen zaio: Batez ere, 50 urtetik gorako pertsonei.

Zertan datza: Adinekoek proposatutako jarduera desberdinak egin ziren, hala nola, hitzaldiak, tailerrak, zineforuma.
Adinekoek urteko gelako programazioa antolatzen dute, beren gustu eta interesei erantzun diezaion.

Nork parte hartzen du: Soraluzeko Udaleko Gizarte Ongizate Batzordea.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/gjow1

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Tokikoak

Izalbira

Lugar: Idiazabal (Gipuzkoa).

Objetivo: Helburua: Ohitura osasungarriak bultzatzea eta erlazionatzeko espazio bat sortzea taldeko ibilaldien bidez.

Nori zuzentzen zaio: 65 urtetik gorako pertsonei.

Zertan datza: Asteartero, 11: 00etan ibilaldi osasungarriak ateratzen dira herriko plazatik.
Ibilbide seguruak, lauak eta irisgarriak egiten dituzte.
Adineko pertsonen jarduera fisiko ezagatik sortu zen proiektua.

Nork parte hartzen du: AdinEtxe Jubilatu Elkartea, Nagusilan, Caritas, Idiazabalgo Mojak eta Idiazabalgo Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/xRSV3

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

Adinekoekin Lagunkoi diren Landa Komunitateen Esperientzien Topaketa Nazionala

Tokia: Puente Viesgo (Kantabria).

Helburua: Beste landa-esperientzia nazional batzuetatik ikasteko eta haien aurrerapenak, zailtasunak eta erronkak partekatzeko gune bat eskaintzea.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei, administrazio publikoko langileei eta landa-eremuan adinekoei laguntzen dieten erakundeei.

Zertan datza: Jardunaldiak 2022ko azaroan egin ziren.
6 autonomia erkidegok (Asturias, Kantabria, Extremadura, Galizia, Madril eta Euskadi) aurkeztu zituzten esperientzia interesgarrienak eta lagunkoitasunaren inguruan eman diren aurrerapausoak lurralde txikietan eta landa-eremuetan.
Topaketa honen helburuetako bat da landa-eremuko udalerriak elkarri laguntzea adineko pertsonekin lagunkoiago izan daitezen.

Nork parte hartzen du: PEM Fundazioa (Europako Adineko Patronatua), UNATE (Etengabeko Unibertsitatea), eta Kantabriako Gobernuko Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dopK0

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

Caritas proiektua: zahartze aktiboa eta landa-dinamizazioa Ourensen

Tokia: Ourense (Galizia).

Helburua: Zahartze aktiboari buruzko programa bat garatzea, adinekoen arteko harremanak sustatzea eta tradizioak berreskuratzea, dinamizazio-jardueren, partaidetzaren eta beste belaunaldiekiko harremanen bidez.

Nori zuzentzen zaio: 65 urtetik gorako 99 pertsonari (80 emakume eta 19 gizon).

Zertan datza: Calvos de Randín, Baltar eta Muiñoseko udaletxeetan adineko pertsonak duintasunez etxean zahartu ahal izatea bilatzen da, beren betiko auzo eta herriarekin erlazionatzearen bidez.

Nork parte hartzen du: Cáritas Ourense.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/prJW0

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

“Rompiendo Distancias” (Distantzia Txikitzen)

Tokia: Asturiaseko Printzerria

Helburua: Adinekoek beren ingurunean bizitzen jarrai dezaten laguntzea, zerbitzuak eremu isolatuenetara hurbilduta.
Boluntariotza, integrazioa eta beste belaunaldiekiko harremanak sustatzea.

Nori zuzentzen zaio: Biztanleria landa-guneetan sakabanatuta bizi diren 65 urtetik gorako pertsonei.

Zertan datza: Landa-eremuetan adineko pertsonen diskriminazioa saihestea, mendekotasuna artatzeko, komunitatean parte hartzeko eta boluntariotzako ekintzak eskainita.

Nork parte hartzen du: Asturiaseko Printzerriko Ongizate eta Berdintasun Kontseilaritza.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/lET28

Partaidetza maila: 1, norbanakoaren bizitzari buruzko banakako erabakiak hartzea.
Baita ere 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.

Estatukoak

“Quédate Con Nosotros” (Gurekin gera zaitez)

Tokia: Pescueza (Cáceres).

Helburua: Adinekoekin lagunkoiagoa den herria sortzea hurbileko zerbitzuak eskainita adinekoen partaidetza errazteko eta laguntzeko.

Nori zuzentzen zaio: Adinekoei.

Zertan datza: 2009az geroztik, proiektuak bilatzen du adinekoek udalerritik kanpora joan beharrik ez izatea zerbitzu bila.
Beharretatik hurbil dauden zerbitzuak ematen ditu, hala nola, Etxez-etxeko laguntza zerbitzua (ELZ), etxez etxeko janaria edo kotxetxo elektrikoa herrian barrena mugikortasuna errazteko.
Eguneko zentroko tokiak ere handitu dira, etengabeko zaintzarako egoitza bihurtzeko.
Proiektuak eragin positiboa izan du udalerrian, enplegua sortuta eta joan-etorriak murriztuta.

Nork parte hartzen du: Pescuezako Lagun Elkartea

Informazio gehiago: https://shorturl.at/egxHU

Partaidetza maila: 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Nazioartekoak

Garraioari buruzko partaidetza-inkesta

Tokia: Humboldt, Saskatchewan (Kanada).

Helburua: Adineko pertsonen garraio-beharrak identifikatzea, askatasunez mugitzen laguntzeko komunitatean bertan, eta baita beste hiri batzuetara ere.

Nori zuzentzen zaio: Humboldteko adinekoei eta herritar guztiei.

Zertan datza: Humboldt herria Adinekoekiko Hiri Lagunkoien sareko kide da 2020tik.
Adineko pertsonen garraio-beharrak ezagutzeko inkesta bat sortu zen eta epe luzerako estrategia bat sortu zen.

Nork parte hartzen du: Humboldteko Lagunkoia Batzordea

Informazio gehiago: https://shorturl.at/cgMO8

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Hiri-eremua

Tokikoak

Belaunaldien arteko saioak

Lugar: Aretxabaleta (Gipuzkoa).

Helburua: Adinekoen errealitatea eta komunitatean eskuragarri dauden baliabideak partekatzea belaunaldi berriekin, horiei buruz modu parte-hartzailean eztabaidatu ahal izateko.

Nori zuzentzen zaio: DBHko 3. mailako ikasleei.

Zertan datza: Guztira 9 eskola orduko 3 saio antolatu dira, DBH 3. mailako irakasleentzat, adinekoen arazoak eta inguruneko baliabideak lantzeko.

Nork parte hartzen du: Aretxabaletako Udala, Kurtzebarri Eskola eta Basotxo erretiratuen eta pentsiodunen Elkartea.

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Tokikoak

Zumarragako Adinekoen Kontseilua

Tokia: Zumárraga (Gipuzkoa).

Helburua: Zahartze aktiboaren alde egitea, autonomia pertsonala sustatzea eta gizarte kohesioari laguntzea.
Arrisku eta zaurgarritasun egoerei buruz kontzientziatzea

Nori zuzentzen zaio: Zumarragako udalerriko adinekoak.

Zertan datza: Udaleko kontsulta- eta aholkulari-organoa da.
Bertan adinekoek udalerrian nola zahartu nahi duten gaiari buruz hausnartzen, eztabaidatzen eta proposamenak egiten dituzte.

Nork parte hartzen du: Zumarragako Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dlpyI

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Tokikoak

Portugaleteko Adinekoen Kontseilua

Tokia: Portugalete (Bizkaia).

Helburua: Adinekoei haien interes eta lehentasunei buruz erabakitzeko aukera ematea, udal-politikak horietara egokitu daitezen.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei.

Zertan datza: Kontsulta-organoa da, Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseiluari atxikia.
2 hilean behin biltzen da eta herritarrek eta elkarteek dauden zerbitzuak antolatzeko eta hobetzeko proposamenak egiten dituzte.

Nork parte hartzen du: Udaleko politikari eta teknikoak, gizarte zentroetako ordezkariak (Villanueva, Errepelega, Buenavista, San Roke eta Zubia) eta eremu honetan parte hartzen duten erakundeak eta elkarteak (Aspaldiko Fundazioa, Hartu Emanak, Villa Amigable, Las Amigas, Buenavista eta Errepelega).

Informazio gehiago: https://shorturl.at/elmN9

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Tokikoak

Belaunaldien arteko Legaztipi Tapa

Tokia: Legazpi (Gipuzkoa).

Helburua: Bizitza osasungarria eta gizarte harremanak hainbat belaunaldiren artean sustatzea.

Nori zuzentzen zaio: Adinekoei eta ikastetxeetako ikasleei.

Zertan datza: Ekimena 2014an sortu zen, ibilaldi osasungarrietan parte hartu nahi zuten adinekoentzat.
2020tik, udalerriko ikastetxeetako ikasleek ere parte hartzen dute.
Jarduera ostegunetan egiten da
eta bazkariarekin edo hamaiketakoarekin batera egiten da.
Ibilbide seguruak, lauak eta egokituak dira.
Jarduera honek Legazpiko bizilagunen arteko harremanak errazten ditu.

Nork parte hartzen du: Legazpiko Udala, Osakidetza, udalerriko ikastetxeak, Nagusilaneko boluntarioak, Buztintegi Jubilatuen eta pentsiodunen elkartea, Gueske esperientzia eskolako ikasle ohien taldea, Iratzarri elkartea.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/BDK38

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

Yayas Kusama (Hiri Artea)

Tokia: Madril.

Helburua: Adinekoen sormena sustatzea hiri artearen bidez, espazio publikoan ikusgarriago bihurtuta.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei.

Zertan datza: Adinekoen zentro batean elkar ezagutu zuten 7 adineko artistek osatutako talde bat kaleetan margotzen dute, Pinta Malasaña pintura-jaialdiaren barruan.

Nork parte hartzen du: 65 eta 80 urte bitarteko 7 pertsona.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/wAPV7

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

Can 70 (Etxebizitza kooperatiboa)

Tokia: Bartzelona.

Helburua: Elkarbizitza-ereduei buruzko taldeko hausnarketa egitea, modu autokudeatu, autonomo eta osasungarrian zahartzeko.

Nori zuzentzen zaio: Etxebizitza kooperatiboetan zahartu nahi duten adinekoei.

Zertan datza: Adineko pertsonen talde honek hausnarketa egiten du 2015etik, zahartu eta komunitatean nola bizi nahi duten jakiteko.
Adinekoen bizikidetzako zainketei buruzko 6 gida argitaratu dituzte.
Hirian etxebizitzak eraikitzeko lurzoru publiko bat lagatzea lortu duen Bartzelonako adinekoen lehen kooperatiba da.

Nork parte hartzen du: 55 eta 70 urte bitarteko 20 pertsona, gehienak emakumeak.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/fzRU2

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Estatukoak

"Guías por un día" (Gidari egun batez) Belaunaldien arteko proiektua

Tokia: Fuenlabrada (Madril).

Helburua: Adin desberdinetako pertsonen artean ezagutzak eta esperientziak partekatzea, harreman esanguratsuak sortzen.

Nori zuzentzen zaio: Fuenlabradako herritarrei.

Zertan datza: Salvador Allende Bigarren Hezkuntzako Institutuko 30 ikasleko talde batek "Gidari egun batez" izeneko lana egin zuen, Madrilgo Las Letras auzotik ibilbide turistiko bat eginez.
Ibilbide horretan, adinekoek oroimen historikoa eskaintzen dute, kale horiek nola gogoratzen zituzten eta kale horietan zer bizi izan zuten azaltzeko.

Nork parte hartzen du: Fuenlabradako Adineko Zinegotzigoa eta Salvador Allende Bigarren Hezkuntzako Institutua.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/iksF7

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Estatukoak

Ekintza taldeak

Tokia: Zaragoza.

Helburua: Zahartze aktiboa sustatzea,
ahalmen fisikoak, mentalak eta sozialak mantenduta.
Ikasteko eta erlazionatzeko tokia eskaintzea.

Nori zuzentzen zaio: Zaragozako adinekoei.

Zertan datza: Adineko hainbat taldek erakusketak, lehiaketak edo jarduerak antolatzen dituzte Zaragozako Hiritar Elkarbizitzarako Zentroan.

Nork parte hartzen du: Zaragozako Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/nuCEJ

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Estatukoak

Adinekoen gela unibertsitarioak

Tokia: Andaluzia.

Helburua: Zahartze aktiboaren alde egitea, autonomia pertsonala sustatzea eta gizarte kohesioari laguntzea.
Arrisku eta zaurgarritasun egoerei buruz kontzientziatzea

Nori zuzentzen zaio: 55 urtetik gorako adinekoei,
titulu akademikoa izanik edo izan gabe.

Zertan datza: Hainbat gairi buruzko prestakuntza-moduluak, jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta kultura-bisitak eskaintzen dira,
erretiroa edo aurre-erretiroa hartu duten
eta prestatzen eta harremanetan jartzen jarraitzea
interesatzen zaien adinekoentzat.

Nork parte hartzen du: Andaluziako Juntako Gizarteratze, Gazteria, Familia eta Berdintasuneko Kontseilaritza.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/aquT9

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Estatukoak

“El baúl de la experiencia” (Esperientziaren kutxa)

Tokia: Cartagena (Murtzia).

Helburua: Adinekoek hainbat gairi buruz esperientziak eta ezagutza parteka ditzaten eta ikasten jarrai dezaten erraztea.

Nori zuzentzen zaio: Cartagenako adinekoei.

Zertan datza: Ikasteko, elkartzeko eta elkarri laguntzeko tokia da.
Bertan, adinekoek ikastaroak eta tailerrak ematen dituzte dakitenari buruz (lorezaintza, sukaldaritza, brikolajea, historia...)
eta beste pertsona batzuengandik ikasten dute.
Saioetarako udalaren eta beste elkarte batzuen aretoak erabiltzen dira
eta behar dutenei joan-etorriak ordaintzen zaizkie.

Nork parte hartzen du: Cartagenako Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/suQZ3

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 4, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Estatukoak

Adinekoen sarea

Tokia: Iruñea (Nafarroa).

Helburua: Atsegin eta errespetuzko auzoak eraikitzea, adinekoei laguntza eta zaintzak eskaintzeko.

Nori zuzentzen zaio: Iruñeko auzoko adinekoei.

Zertan datza: Proiektu honek adinekoen eguneroko beharrei erantzungo dien auzo-sare bat sortu nahi du.
Hainbat modutan parte har daiteke, borondatezkoa izanda
edo zerbait ondo ez doala dioten seinaleei adi egonda,
Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko.

Nork parte hartzen du: Iruñeko Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/cqDT0

Partaidetza maila: 1, norbanako bizitzari buruzko erabakiak hartzea.
Baita ere 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.

Nazioartekoak

Age & Opportunity's Bealtaine Festival

Tokia: Irlanda.

Helburua: Aukerak sortzea adinekoak parte har dezaten eta sormenezko- eta kultura-bizitzan ordezkatuta egon daitezen.

Nori zuzentzen zaio: Irlanda osoko adinekoei.

Zertan datza: Adinekoen sormena ospatzeko jaialdia da.
Irlandako handiena eta lehenengoa munduan.
Maiatza osoa irauten du.

Nork parte hartzen du: Age & Opportunity.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/jpxU7

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Grandma Came to Work (Fermenta)

Tokia: Portugal.

Helburua: Adinekoen talentua lantzea tokiko komunitatean espazio bat eskainita, harreman sozialak eta emozionalak sortzeko.

Nori zuzentzen zaio: Parte hartu nahi duten herritarrei.

Zertan datza: Belaunaldien arteko sormenezko zentroa da.
Bertan serigrafia, brodatu eta puntu tailerrak egiten dira.
Baita, turismo eta kultura jarduerak, gozogintza eta ipuin-kontalariak ere.
Bestaldetik, 3 edo 4 hilabetean behin saltzen dira tailer horietan eskuz egindako produktuak.

Nork parte hartzen du: Munduko sare anitza.
Diseinatzaileek, etnografoek, artistek, estrategek eta teknologoek osatzen dute.
Proiektu bakoitzaren behar zehatzen arabera sortzen dira taldeak.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/fnqQV

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Nazioartekoak

New Ground Cohousing

Tokia: Erresuma Batua.

Helburua: Bakarrik bizi diren emakumeen bakardadeari aurre egitea bizimodu bat eskainita, lagunduta, independente eta seguru senti daitezen. Diru-sarreragatik bazterketa ezabatzea, alokairu sozialak eskainita.

Nori zuzentzen zaio: 50 urtetik gorako emakumeei.

Zertan datza: North Londoneko etxebizitza komunitarioen proiektu bat da. Bertan bizi diren emakumeek erabakiak modu kolektiboan hartzen dituzte eta bizilagun bakoitza besteei laguntzeko prest dago. Banakako etxebizitzak, toki komunak eta lorezaintzako edo pinturako jarduera komunitarioak ditu.

Nork parte hartzen du: 50 eta 80 urte bitarteko 26 emakume.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/wOSV9

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Dreamlike Neighbourhood
Erasmus+ Programme of the European Union

Tokia: Europar Batasuna.

Helburua: Bizilagunen artean laguntza-sareak sortzea. Bertan adinekoek denbora pasa eta parteka dezakete eta eguneroko zailtasunei aurre egin diezaiekete.

Nori zuzentzen zaio: Bizilagunekin elkartzean eta laguntza-sareak sortzean interesa duten adinekoei.

Zertan datza: Proiektuak auzoko taldeak sortu nahi ditu, bertan adinekoak bildu daitezen haien talentuak partekatzeko, eguneroko erronkei aurre egiteko eta modu aktiboan gizarteari ekarpena egiteko.

Nork parte hartzen du: Queraum, Letokruh, Slovenian Third Age University, AFEdemy, AGE Platform Europe.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/bDMQZ

Partaidetza maila: 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea. Baita ere 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Samenkracht 80+

Tokia: Herbehereak.

Helburua: Adineko belaunaldien ezagutzak eta gaitasunak aitortzea, balioan jartzea eta garatzea.

Nori zuzentzen zaio: 80 urtetik gorako adinekoei.

Zertan datza: 80 urtetik gorako adinekoek taldeko jardueretan partaidetza aktiboa izateko plataforma bat da.
Tokiko plataformak sortzen dira, bertan adinekoek nahiak partekatzen dituzte eta profesionalei eta politikariei aurkezten dizkiete.

Nork parte hartzen du: Samenkracht 80+.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/einu1

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Reminiscence Promenade (Oroitzapenen ibilbidea)

Tokia: Flandes (Belgika).

Helburua: Eguneroko bizitzan dementzia duten pertsonak integratzea, gizartean eta komunitatean parte har dezaten.

Nori zuzentzen zaio: Dementzia duten pertsonei.

Zertan datza: "Oroitzapenen ibilbidea" proiektuak 5 km inguruko 4 ibilaldi eskaintzen ditu "errepide geldoetatik".
Ibilaldi bakoitzak iraganean gertatutakoei buruzko bizpahiru erreferentzia ditu, dementzia duten adinekoek gertaera hori berpiztu eta horri buruz hitz egin ahal izan dezaten.
Ibilbide horiek publikoak dira, belaunaldien arteko harremana eta integrazioa bultzatzeko.

Nork parte hartzen du: De Weister.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/exDFH

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Gante: hiri irisgarria

Tokia: Flandes (Belgika).

Helburua: Gante hiri irisgarria bihurtzea,
bai mugikortasun murriztua duten adinekoentzat,
bai haur txikiak duten familientzat.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei eta hiria bisitatzen dutenei.

Zertan datza: Proiektuaren helburua da Gante irisgarria egitea bisitari guztientzat,
erdigune historikoa gurpil-aulkia[n] dauden pertsonentzat egokituta,
mugikortasun urriko pertsonentzako garraio-aukera berriak
eta haurrak dituzten familientzako aukerak eskainita.
Hiria esploratzeko eta oztopoak saihesteko
ibilbiderik onena deskribatzen duen mapa praktiko bat egin da
eta bisitari guztientzat eskuragarri dago.

Nork parte hartzen du: Ganteko Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/wCI67

Partaidetza maila: 1, norbanako bizitzari buruzko erabakiak hartzea.

Nazioartekoak

Elders Council of Newcastle

Tokia: Newcastle (Erresuma Batua).

Helburua: Zahartzearen irudi positiboa sustatzea eta adinekoak
tokiko komunitateetan eta hiriko bizitzan modu aktiboan
parte hartzera bultzatzea.

Nori zuzentzen zaio: Newcastlen bizi diren 50 urte edo gehiagoko pertsonei.

Zertan datza: Adinekoak liderra diren batzorde bat da.
Kezkatzen dituzten gaiei eta arazoei buruz hitz egiteko biltzen da.
Erabaki politikoetan eragitea du helburu.

Nork parte hartzen du: Newcastleko Udala.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/oFM18

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Nazioartekoak

Voice®

Tokia: Erresuma Batua.

Helburua: Pentsatzeko eta ezagutza sortzeko modu berriak inspiratzea, pertsonak bere buruan uste osoa izan dezaten.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei.

Zertan datza: Voice ® Erresuma Batuko eta beste herrialde batzuetako pertsona-sare handi batek osatutako erakundea da.
Kideek beren ikuspegia, esperientzia eta ideiak ematen dituzte ase gabeko beharrak eta aukerak identifikatzeko, zahartze-gaietan berritzeko eta osasun-ikerketa hobetzeko.

Nork parte hartzen du: National Innovation Centre Ageing.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/lnsC2

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Older People's Commissioner for Wales

Tokia: Gales (Erresuma Batua).

Helburua: Adinekoen eskubideak babestea eta aurkitu daitezkeen erronkei aurre egitea.
Lan egin 4 ildo hauek jarraituta: eskubideak, adinkeria, abusua eta zahartze aktiboa.

Nori zuzentzen zaio: Galesen bizi diren adinekoei.

Zertan datza: Helenak adinekoen komisario gisa lan egiten du 2018tik.
Bere lana adinekoen politika publikoetan eragitea da, ekintzak berrikusita eta jardunbide egokiak sustatuta.
Horretarako, adineko pertsonekin eta hainbat erakunderekin lan egiten du.

Nork parte hartzen du: Heléna Herklots CBE.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/opuxR

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

5. ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Nazioartekoak

Awen Institute

Tokia: Gales (Erresuma Batua).

Helburua: Elkar-sortzearen bidez irtenbide berritzaileak garatzea, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko.

Nori zuzentzen zaio: Galesko herritarrei.

Zertan datza: Institutu bat da. Bertan ikertzaileak adineko pertsonekin eta sormen-industriekin biltzen dira, adinekoen bizitza hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta inguruneak elkarrekin ekoizteko.

Nork parte hartzen du: European Regional Development Fund, Welsh Government, Swansea University, University of South Wales eta University of Wales Trinity Saint David.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/aCI12

Partaidetza maila: 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Granny's Finest

Tokia: Herbehereak.

Helburua: Adinekoen bakardadea prebenitzea eta gizarteko elkartasuna sustatzea, adinekoek konpromisoa har dezaten eta bizi-esperientziak parteka ditzaten lagunduta.

Nori zuzentzen zaio: Taldeetan eta antolatutako jardueretan parte hartu nahi duten adinekoei.

Zertan datza: Granny's Finest Slow Fashion marka bat da. Adinekoen gizarte-partaidetzan eta bakardadeari aurre hartzen laguntzen du. Adinekoentzako artisautza taldeak eta beste jarduera batzuk antolatzen ditu. Produktu guztiak eskuz eginak daude material naturalekin eta birziklatuekin eta ziurtagiria dute. Horrela, gizarte elkartasuna, artisautza babestea eta mundu jasangarriago bat ematen dute.

Nork parte hartzen du: Gizarte-funtsekin eta ongizaterako erakundeekin lan egiten dute.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/ORWZ8

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Modestraat

Tokia: Amsterdam (Herbehereak).

Helburua: Gizarte-partaidetza eta auzoarekiko lotura sustatzea, pertsonek kultura-kezkak partekatzeko espazioak sortuta eta enpresaburuentzat, boluntarioentzat eta egoiliarrentzat topaleku gisa balio dezan.

Nori zuzentzen zaio: Auzoan bizi diren eta komunitate horiek interesatzen zaizkien pertsonei.

Zertan datza: Amsterdameko auzo-zentro bat da. Bertan pertsonak, adinekoak ere, artearekin, kulturarekin eta sormenarekin harremanetan jartzen dira. Komunitate ezberdinak daude, bakoitza bere interesekin. Horien artean, adineko pertsonei zuzendutako bat dago: Sweet 70. Zahartzeari buruz lan egiten du eta hainbat jarduera programatzen ditu.

Nork parte hartzen du: Amsterdameko boluntarioak.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/amxP1

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

Senior Planet Exploration Center

Tokia: Manhattan (Estatu Batuak).

Helburua: Adinekoei Internet erabiltzeko eta mundu digitalean moldatzen ikasteko aukera ematea.

Nori zuzentzen zaio: 60 urtetik gorako pertsonei.

Zertan datza: Zentro honek Interneterako sarbidea eta mundu digitalean hasteko laguntza eskaintzen die adinekoei. Horretarako, ordenagailuak, bideo-jokoak eta hainbat gailu dituzten aretoak eskaintzen dituzte. Interneti, argazkigintza digitalari eta sare sozialei buruzko oinarrizko gaiak ikasteko doako eskolak ere badaude.

Nork parte hartzen du: Older Adults Technology Services (OATS).

Informazio gehiago: https://shorturl.at/oRST3

Partaidetza maila: 2, beste pertsona batzuekin partekatutako tokietara joatea, baina harremanetan jarri gabe.

Nazioartekoak

#OlderAndGreener kanpaina
Adinekoekiko komunitate eta hiri lagunkoien sarea

Tokia: Ingalaterra (Erresuma Batua).

Helburua: Adineko pertsonek klima-aldaketari aurre egiteko egiten duten ekarpena ikusaraztea eta partekatzea.

Nori zuzentzen zaio: Adinekoei.

Zertan datza: Adineko pertsonak klima-aldaketaren ondorioetan arrisku-biztanleria diren arren, haien hitza ez da kontuan hartzen. #OlderAndGreener kanpainak (helduagoak eta berdeagoak esan nahi du) adineko pertsonek komunitateetan klima-aldaketari aurre egiteko egin duten guztia ikusarazi nahi du.

Nork parte hartzen du: Ingalaterrako Adinekoekiko komunitate eta hiri lagunkoien sarea.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/etz56

Partaidetza maila: 2, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Baita ere 5, besteekin harremanetan jartzea guztien helburu baterako.

Nazioartekoak

“Adinekoentzat dibertigarriak diren jarduerak” programa

Tokia: Hong Kong (Txina).

Helburua: Adinekoen parte-hartze komunitarioa sustatzea eta bakarrik bizi diren pertsonen eta komunitatearen artean laguntza-sare bat eraikitzea.

Nori zuzentzen zaio: Hong Kongo adinekoei.

Zertan datza: Programak ongizateari buruzko eztabaida-bilerak, aire zabaleko jarduerak, osasunari buruzko hitzaldiak edo boluntarioen entrenamendua antolatzen ditu. Horrela, adinekoen gizarte-partaidetza sustatu nahi du eta haien artean laguntza-sareak sortzen lagundu. Adibidez, egun bateko birak antolatzen dituzte Hong Kongen, adinekoek haien artean harremanak izan ditzaten eta erakarpen turistikoez elkarrekin goza dezaten.

Nork parte hartzen du: Caritas eta Barne Ministerioa.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dfpC3

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Zahartze aktiborako zentroa

Tokia: Pengerang (Malasia).

Helburua: Adinekoei osasunaren eta ariketa fisikoaren kontrola ziurtatzea, erortzeek eragindako lesioak murrizteko.
Pertsonak modu osasuntsuan eta independentean zahartzea sustatzea.

Nori zuzentzen zaio: Pengerango adinekoei.

Zertan datza: Adinekoen osasun fisikoa hobetzeko eta erortzeak prebenitzeko jarduerak antolatzen dituen zentro komunitarioa da.
Etxean ariketa fisikoa egiteko praktikak ere partekatzen dituzte.
Adineko pertsonek Fit-Van osasun-zentro mugikorraren bidez kontrola ditzakete tentsioa, azukre-maila, pisua...

Nork parte hartzen du: Zahartze aktiborako zentroak.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/mwA15 - https://shorturl.at/bepsw

Partaidetza maila: 2, beste pertsona batzuekin partekatutako espaziotara joatea, baina harremanetan jarri gabe.

Nazioartekoak

Adinekoentzako gaikako malón-a

Tokia: Maipúko komuna (Txile).

Helburua: Parte hartzeko, denbora pasatzeko eta elkartzeko espazio bat eskaintzea, adinekoek gizarteratu eta denbora librea igaro dezaten.

Nori zuzentzen zaio: 60 urtetik gorako adinekoei.

Zertan datza: Showak eta musika-ikuskizunak antolatzen dira, adinekoek beren garaiko musika gogora dezaten eta bertaratzen diren gainerakoekin sozializatzeko aukera izan dezaten, haientzat garrantzitsua den kalitatezko denbora igarota.

Nork parte hartzen du: Maipúko komuna.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dpPU1 - https://shorturl.at/dlvAX

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

“Older & Wiser” Irrati-programa

Tokia: Wight (Erresuma Batua).

Helburua: Lurraldeko adinekoei inguruko zahartze aktiboari eta lagunkoitasunari buruzko informazio baliagarria eskaintzea.

Nori zuzentzen zaio: Herritarrei.

Zertan datza: Programa hau hilean bitan igortzen da tokiko irrati komunitario batean.
Age Friendly Islandeko bazkideek parte hartzen dute eta adinekoentzako Wight uhartea hobetzeko lan egiten duten erakunde publikoak, pribatuak eta boluntarioak ordezkatzen dituzte.
Programak adinekoentzako informazio erabilgarria eta jardunbide egokiak zabaltzen ditu.
Nola zahartzen garen eta lagunkoitasunari buruz hitz egiten du.
Isolatuen dauden adinekoengana iristea bilatzen du.

Nork parte hartzen du: Age Friendly Island, Vectis Irratia.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dop15

Partaidetza maila: 2, beste pertsona batzuekin partekatutako espaziotara joatea, baina harremanetan jarri gabe.
Baita ere 1, norbanako bizitzari buruzko erabakiak hartzea.

Nazioartekoak

Vivre Avec Elkartea

Tokia: Bordele eta Libourne (Frantzia).

Helburua: Adinekoei eguneroko bizitzan konpainia eskaintzea eta belaunaldien artean harreman garrantzitsuak sortzea.

Nori zuzentzen zaio: Bordeleko eta Libourneko adinekoei eta ikasle gazteei.

Zertan datza: Belaunaldien arteko bizikidetza-programa bat da:
bakartasun edo isolamendu sentimendua duen adineko pertsona batek ikasle gazte bat etxean hartzea onartzen du.
Horrela, gazteak gela bat eta ikasteko leku bat ditu, bertan egotearen eta adinekoari laguntzearen truke.
Bi pertsonek besteari adi egoteko eta lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dute.

Nork parte hartzen du: Vivre Avec elkartea.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/zGP19

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.

Nazioartekoak

“Antzerkia eta Memoria” tailerra

Tokia: Lyon (Frantzia).

Helburua: Adineko pertsonak etxean isolatzea prebenitzea eta haien memoria eta sormena entrenatzeko gune bat eskaintzea.

Nori zuzentzen zaio: 60 urtetik gorako pertsonei.

Zertan datza: Antzerkiaren bidez oroimena eta oroitzapenak lantzeko jarduera da. Urtean zehar 2 ariketa egiten dira:

- Idazketa-tailerrak, bertan bizitzaren zati bat kontatzera gonbidatzen zaie,
- Batez ere haurtzaroa, eta partekatutakoa eszenaratzeko antzerki-saioak.

Nork parte hartzen du: Habitat et Humanisme.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/bixX6

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Eserleku berritsuak bat-bateko elkarrizketetarako

Tokia: Göteborg (Suedia).

Helburua: Adinekoei elkarrizketarako leku bat eskaintzea, pertsonen arteko bat-bateko topaketa sustatzeko eta bakardadea eta gizarte-isolamendua prebenitzen laguntzeko.

Nori zuzentzen zaio: Göteborgeko adinekoei.

Zertan datza: Ekimen hau Göteborg adinekoekin lagunkoiago egiteko ekintza-planaren barruan dago.
Eserleku berritsuak hiri osoan zehar jarri dira, adinekoek erabakitako lekuetan.
Horiek jartzeko, administrazioek, enpresek eta adinekoek lagundu dute.
Eserlekuak haritz ilunaren zurez eginak daude eta marko hori bat dute beso-euskarriekin erosoagoak izateko.
Adineko pertsonentzako topaleku eta elkarrizketa gune dira.

Nork parte hartzen du: Parkeak eta natura administraritza, beste administrazio eta enpresa batzuekin batera.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/jsuwS

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.

Nazioartekoak

Blind Café

Tokia: Trieste (Italia).

Helburua: Komunitateko pertsonen eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen arteko harremanak erraztea, integratzen laguntzeko.

Nori zuzentzen zaio: Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonei eta herritarrei.

Zertan datza: Bizpahiru hilean behin bazkari bat edo ilunpeko bazkaria egiten da ikusmen-desgaitasuna duten pertsonek daramaten taberna batean. Horrela, ikusmen-desgaitasuna izateak zer esan nahi duen sentitzen da eta herritarrak kontzientziatzen laguntzen da.

Nork parte hartzen du: Regional Rittmeyer Institute for the Blind.

Informazio gehiago: https://shorturl.at/dqyBU

Partaidetza maila: 3, beste pertsona batzuekin denbora partekatzea elkarrekin gozatzeko asmoarekin.
Baita ere 4, besteei laguntzeko jardueretan parte hartzea.

EUSKADI
lagunkoia
Bizitzaz betetako bidea

EUSKO JAURLARITZA
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

www.euskadilagunkoia.net